



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udala

Bilboko Gobernu Batzordearen 2024ko abenduaren 18ko Hitzarmenaren laburpena, hurrengo arloan diru-laguntzen deialdia egiteko dena. Garapenerako lankidetzeta eta giza-eskubideak 6 Arloa: Sentsibilizazioa, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza. Urte biko programak. BDNS (Identif.): 803955.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/803955>).

Bat. – Onuradunak

Egoitza nagusia edo ordezkari finkoa Bilbon (dokumentu-bidez egiaztatuta) daukaten elkarteak eta dirua irabazteko asmorik gabeko entitateak izango dira. Euren helburuetan garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa edo giza-eskubideen defentsa eta sustapena edo kulturartekotasunaren arloko sentsibilizazioa agertzea.

Bi. – Helburua

Sentsibilizazio, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren eremuaren barruan proiektuak bultzatzea, urte biko programen bitartez.

Hiru. – Oinarri arautzaileak

Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautuko dituen Ordenantza Orokorra (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 138 zk., 2016-07-20koa).

Lau. – Zenbatekoa

Deialdi honetarako zenbatekoa 80.000 euro da (40.000 euro 2025 ekitaldirako eta 40.000 euro 2026 ekitaldirako). Diruz laguntzeko kontzeptuari aplikatzeko erregimena norgehiagoka da. Gehienezko diru-kopurua programako: 8.000 euro urtero (16.000 euro osotara).

Bost. – Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hurrengo egunean hasi eta 2025ko otsailaren 21ean amaituko da.

Sei. – Beste datu batzuk

Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, Sentsibilizazio, Garapenerako Hezkuntza eta Giza Eskubideei buruzko proiektuei laguntzeko eskari-orria (2025. urtea) 5 eta 6. Lerroak deritzon ereduaren arabera.

Bilbon, 2024ko abenduaren 18an.—Giza Eskubideak, Bizikidetzeta, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Saileko Zinegotzi ordezkaria, Iñigo Zubizarreta Aguirrezabal